

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

87/2020 Foru Agindua, apirilaren 14koa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuarena, "Dulantziko herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren berrikuspeneko" Ingurumen Txosten Estrategikoa egiten duena

"Dulantziko herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren Berrikuspena (BIPB)" izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura erraztua gauzatu behar da. Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak BIPBren berrikuspen horren inguruko ingurumen agiri estrategikoa jaso du, Dulantziko Udalak igorria eta Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukiari jarraitzen diona, bai eta hirigintza agiria ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako agiriak jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen artean, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2020ko apirilaren 6an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/160 espediente).

1. BIPBren berrikuspenaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. BIPBren berrikuspenaren ezaugarrien laburpena:

Dulantziko herrigune historikoko BIPBren berrikuspenak helburu hauek ditu:

– Eraikuntzaren antolamendu xehatua berrikustea. Lehendik dauden eraikin batzuen le-
rrokadurak, altuerak eta abar aldatuko dira.

– Hirigintzako araudia egokitzea BIPBren lehen berrikuspenaren ondoren onartutako al-
daketei.

– BIPBren Babes Historiko-Arkitetkonekoko Katalogoa egokitzea Eusko Jaurlaritzaren On-
darearen Erregelamenduaren Monumentu Multzo gisa Kultura Ondasunaren Deklarazioaren
zehaztapenei.

– Aparkalekuen eskuragarritasuna hobetzea.

Hauek dira proposamen orokor batzuk, besteak beste:

– Eraikuntzaren antolamendua: Euskalherria kaleko 2. zenbakiko eraikina kentzea, antola-
menduz kanpokotzat jotzen delako. Era berean, gaur egun BIPBk ezarritakoarekin guztiz bat ez
datozen eraikinen antolamendu xehatua berrikusiko da, eta guztira 8 eraikin izango dira.

– Dulantziko herriguneko Kultur Ondasunaren Deklarazioaren eta BIPBren Katalogoaren
artean dauden desadostasunak ezabatzea. Horretarako, Kultura Ondasunaren Deklarazioak
ezarritako Katalogazioa onartzea proposatzen da.

– BIPBren eremuko lurzatiaren babes arkeologikoko araubide espezifiko ezartzeko proposa-
mena, gehieneko babes maila, babes maila ertaina eta babes maila txikia ezarri.

– Espazio libreen antolamendua: espazio librearen erabileraren arabera sailkatzeko proposamena, honako espazio hauek ezarriz:

- Egoteko espazioak.
- Oinezkoentzako kaleak, ibilgailuen trafikoa onartzen dutenak.
- Ibilgailuen eta oinezkoen trafikoko kaleak.
- Erabilera publiko mugatuko etxarteak.
- Lorategiak eta berdeguneak.
- Frontoia – kirol gunea.

Aurkezten diren proposamen espezifikoaren artean, honako hauek daude:

– 6. etxaldeko iparraldeko aldea berrantolatzea. Antolamendua aldatzea proposatzen da, eraikin lineal berri bat ezarriz (gutxi gorabehera 148 m²), beheko solairua, lehen solairua eta teilatupea dituen, indarreko antolamenduarena (331 m²) baino aprobetxamendu handiagoa ahalbidetzen duena (gutxi gorabehera 400 m²) eta bizitegitarako erabilerarako egokia.

– Ibaiondoko lorategiak berrantolatzea: Dulantzi ibaiaren erribera berrantolatzea proposatzen da, gutxi gorabehera 10 aparkaleku kenduz eta lorategi eremua 545 m²tan zabalduz.

– Frontoiko lorategiak berrantolatzea, frontoiko frontiseko hormaren ondoan dagoen bidea erantsiz.

– Udaletxe ondoan dauden aparkalekuak berrantolatzea. 6 aparkaleku plaza murriztea proposatzen da, landare elementuak eta zuhaitzak sartzeko, haien ingurumen kalitatea hobetu eta espazioaren pertzepzioa atseginagoa egin dezaten.

– Herrigune historikoaren iparraldean lurpeko aparkaleku bat proiektatu da, Solandiako egungo jolas eremuaren azpian. Gutxi gorabehera 880 m² izango ditu eta 60 aparkaleku hartuko ditu bi solairutan.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

BIPBren berrikuspenak herrigune historikoaren eremu osoari eragiten dio, AL01 herrigune historikoaren hirigintza eremuarekin bat etorriz. Ez da arau subsidiarioen aldaketarik egitea aurreikusten, gaur egungo hirigintza egoera berriari erantzuteko zuzenketa eta egokitzapen txikiak izan ezik:



Dulantziko herrigune historikoko BIPBren mugaketa

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, bi aukera hartu dira kontuan, sustatzaileak berak aurkeztutako dokumentazioan jasotzen dituen oharpen hauekin:

– “0” aukera edo egungo egoera (ez da hautatu): Egungo egoerari eusteak ekarriko luke 126/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria kontuan ez hartzea. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Dulantziko Udalarari eskatzen dio egokitu dezala udaleko hirigintza araudia monumentu multzorako zehazten den babes araubidearen aginduetara, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2 artikuluan ezarritakoa betez. Bestalde, eragotziko luke aparkaleku berriak sortzea eta egungoak birmoldatzea, baita berdeguneak hobetzea eta zabaltzea ere.

– “1” aukera (hautatua): BIPBren berrikuspenak, sustatzaileak azaldutakoaren arabera, oinezkoen eta bideen irisgarritasuna hobetuko du, bai eta eraikinen kontserbazio egoera ere. Bestalde, aparkatzeko lekua handitu egingo da 60 plazako lurpeko aparkalekua eraikitzeke proposamenarekin.

Aukera hori ez gauzatzeak hobekuntza horiek alde batera uztea ekarriko luke udalerrientzat oro har, eta, bereziki, herrigune historikoarentzat, udalak aurkeztutako dokumentazioan adierazten duenez. Era berean, argudiatzen da horrek berekin ekarriko lukeela indarrean dagoen araudian ezarritakoa ez betetzea (126/2002 Dekretua). Arau horren bidez, Eusko Jaurlaritzak udalarari eskatzen dio udaleko hirigintza araudia (BIPB) dekretu horrek ezartzen dituen babes araubideko aginduetara egokitzeke.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2019ko urriaren 25ean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazten da:

URA – Uraren Agentzia	
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Dulantziko Udala	
Dulantziko Administrazio Batzarra	
Arabako Lautadako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo oharren kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/160 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena egin du, non hau ondorioztatzen baita, BIPBren proposamenaren laburpena egin ondoren: “Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren esparrua Dulantziko herriguneari dagokio; beraz, ez dio eragiten nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerari. Ez du eraginik, ezta ere, Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan”

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du gaur egun indarrean dagoela Euskal Kultura Ondarearen Legea (6/2019 Legea), eta Dulantziko herrigune historiakoak baduela babes arkeologikoko araubide espezifiko bat, hirigune historikoko arkeologia zona Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian inskribatzeko Aginduan xedatutakoak zehazten duena (EHAA 71. zk., 1996/04/12koa). Adierazten da, ondorioz, BIPB horren proposamen arkeologikoa (4.1.1.4. apartatua) ez datorrela bat legean xedatutakoarekin, eta, gutxienez, herrigune historiko osorako babes maila ertaina behar dela. Ildo horretatik hau ondorioztatzen da: “ez dagoenez jakiterik alde aurretik orube, eraikin, lorategi, bide eta abarren potentzial arkeologikoa, adierazi behar da alde zaharreko arkeologia zonaren mugaketaren eremuan proiektatzen den obra orok Arabako Foru Aldundiaren aldeko txostena izan behar duela aurretik, kasu bakoitzean ezarriko baititu jarraitu beharreko jarduketara arkeologikoa eta hori gauzatzeko prozedura”

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenetan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan”. Bukatzeko, honela dio: “Kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, 4/2015 Legearen, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 22. artikuluan ezarritakoa betez”

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen Zuzendaritzak, proposamenaren laburpena egin ondoren, BIPB eguneratzeko helburu zehatzak adierazita, natura ondarearen gaineko eraginaren azterketa egin du. Ildo horretan, honako hau jasotzen da: “bidalitako ingurumen dokumentuak adierazten duen bezala, aurreko apartatuan zehaztutako proposamen espezifikoak dira (eraikina kentzea, Dulantzi ibaiaren erribera berrantolatzea eta lurpeko aparkalekua) eragin ahalmen handiena dutenak aztertutako eremuko balio handieneko elementu naturalari dagokionez, hau da, Dulantzi ibaiari eta haren ibaiertzei dagokienez”. Euskalherria kaleko 2. zenbakiko eraikina eraitsi eta lurrazpiko aparkalekuari dagokienez, obrak egin bitartean hartu beharreko neurriak gehiago zehazteko eskatzen da. Espazio libreei dagokienez, gomendatzen da bai gaur egun aparkalekurako erabiltzen den azalera -espazio libreetan sartzeko botatzen dena- bai ibaiaren mugakide den gainerako zerrendan, ibaiertzeko basoan berezkoak diren zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak landatzea. Eskatzen da neurri hori jasotzea “BIPBi lotutako araudian esplizitoki jasota”

Azkenik, herriko eraikin historikoetan hazi daitezkeen kiropteroak eta gaueko harrapariak babesteko neurri espezifikoak jasotzeko eskatzen da (neurri horiek egokituz jotzen dira eta txosten honen baldintzetan jasotzen dira).

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zerbitzuak, BIPBren dokumentazioa aztertu eta ondarearen eta 6/2019 Legearen eraginaren balorazioa egin ondoren, honako hau ondorioztatu du:

- Ez dira onargarriak 126/2002 Dekretuan onartutakoez bestelako eraikuntza jarduketak ahalbidetzen dituzten proposamenak, dekretu horretan bat ez datozen elementuei buruzkoak (San Blas 3-5i atxikitako bolumena; hainbat eraikinen altueren aldaketak; estalkien tipologiaren aldaketa, bi isurialdekoa izan behar duena eta fatxada nagusiarekiko gailur paraleloa duena; eta eraikin babestuak zati batean eraisteko jarduketak, esaterako, Herriko Enparantza 1ean planteatua).

- Fitxa grafikoek, itxuraz, memorian deskribatu gabeko aldaketak erakusten dituzte; beraz, horri buruzko informazio zehatzagoa behar da.

– Katalogoan 126/2002 Dekretuan diskordante gisa adierazitako elementuak ez badaude, zuzendu egin behar da. 184/2017 Dekretuak babestutako Solandia zubia ere katalogoan sartu behar da, bai eta haren ingurune babestua BIPBrekin harmonizatu ere.

– BIPBren babes arkeologikoari buruzko araudia bat etorri behar da Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean babes maila ertaina duten arkeologia zonetarako ezarritako babes araubidearekin eta esku hartzeko irizpideekin.

– Solandiako parkean aparkalekua egiteko proiektuak alde zurretik eremu horren azterketa arkeologikoa egitea mereziko luke, San Martin eremutik nahiko hurbil baitago, non interes handiko hondakin berantiarak eta Goi Erdi Arokoak aurkitu baitira.

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak hainbat gomendio jasotzen ditu.

– Babestu beharreko higiezinaren kategorizazioari dagokionez, oinarrizko hiru mailatan banatuko dira: lehenengo biak Euskal Kultura Ondarearen EAeko erregistroa osatzen duten ondatsunegi dagozkie (babes berezia eta ertaina); hirugarren maila, berriz, Katalogoan sartzen diren higiezinak osatuko dute (babes berezia eta ertaina dutenak izan ezik).

– Dauden ondare historiko arkitektonikoaren zerrendetan jasotako elementuak behar bezala eguneratuta sartzea gomendatzen da.

– Elementu higiezin bakoitzaren banakako azterketa bat egiteko eskatzen da, fitxen bidez, 6/2019 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera (II. eranskin bat erantsi da eredu gisa).

– I. eranskina erantsi da, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/2019 Legeak kultura ondasunetan esku hartzeko ezartzen dituen irizpideen laburpenarekin.

– Araudi orokor bat idazten bada, eskuratu den III. eranskineko jarraibideak betetzea gomendatzen da.

– Zerbitzuak berak egindako gidaren berri eman da: "Arabako monumentu multzoetan kolore paleta bat ezartzeko aurretiko azterlanak"

– Azkenik, hiri morfologiari eta ondare historiko-arkitektonikoko elementuekin duen loturari buruzko hainbat gomendio egin dira, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legea betetzeko eskatu, oinarrizko babesa duten ondasunak eraisteko debekuari dagokionez.

3. BIPBren berrikuspenaren ingurumen eraginaren deskribapena

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan bertan balioesten denez, zehazki Ingurumen Agiri Estrategikoan, BIPBren berrikuspenaren izaeratik, espero da honako jarduketa hauek izatea inpaktuak eragin ditzaketenak: eraikinak eta eraikin berriak birgaitzeari buruzkoa antolamendua, babes arkeologikoa, espazio libreak antolatzea, lur gaineko eta lurpeko aparkalekua eraikitzea, eraikinak eraistea, bideak kentzea, oinezkoen mugikortasuna hobetzea eta espazio libreak handitzea eta birmoldatzea (Ibaiondoko lorategiak eta "El Fronton" berrantolatzea).

Ildo horretan, ingurumen inpaktu nabarmenenak izango lirateke gune berdeetan eta hiri paisaian, lurzoruan (lur mugimendua) eta airean (kutsadura akustikoa) eginak, baliabideak kontsumitzea eta lurpeko eta azaleko aparkalekua eraikitzearen ondorioz hondakinak sortzea. Era berean, ondare arkeologiko eta historiko-arkitektonikoan izan litekeen inpaktua ere kontuan hartu behar da.

Aurrekoa gorabehera, beste inpaktu batzuk ere kontuan hartu beharko lirateke, esanguratsuek direlako. Esaterako, BIPBren berrikuspenaren ondorioz, hainbat etxebizitza garatu eta egiteko aukera sortzen da. Horrek aldaketak eragingo lituzke ur horniduraren eta saneamendua-ren gaineko eskarian, eta, beraz, gai hidraulikoetan eskumena duen organoak horren gainean ezartzen duena bete beharko litzateke.

Solandia parkean aparkalekua egiteko, litekeena da gaur egun parke horren inguruan dauden 15 zuhaitz (bananondoak) moztea, nahiz eta gerora birlandaketak egitea planteatzen den, espezie autoktonoak lehenetsiz. Nolanahi ere, teknikoki egingarria den heinean, lehentasunezkoztat jo beharko da aleak egungo kontserbazio egoeran mantentzea.

Bestalde, berdegune berriak egokitzeak, eta eraikinen birmoldaketek eta eraispenek, Ingurumen Agiri Estrategikoak adierazten ez badu ere, inpaktua (positiboa edo negatiboa) eragin lezakete hiri paisaia eta, neurri txikiagoan, faunarengan. Dulantzi ibaiaren ondoko berdeguneak zabalduz gero, ondorio onuragarriak sor litezke faunarengan, edo kaltegarriak, babes neurri egokiak hartu ezean. Kontuan hartu behar da ibai horretan badirela kudeaketa planak dituzten katalogatutako fauna espezieak (bisoi europarra eta ibai kabuxa, "Galtzeko arriskuan" katalogatuak).

BIPBren berrikuspen hau onartzearen ondorioz gauzatu daitezkeen konponketa, mantentze eta eraikuntza obretan, ahalik eta murriztenak izan beharko dira basoko faunaren gaineko eraginak, batez ere kiropteroen eta gau harraparien gainekoak. Izan ere, animalia horiek jarduera eremu honetako eraikinen baten barrualdean izan dezakete bizilekua. Gainera, lanen ondorioz sortzen diren hondakinak era desegokian kudeatzeak ekar litzakeen ondorio kaltegarriak zeharo saihestu behar dira. Hortaz, BIPBren dokumentuaren araudian espezie talde horiek babesteko neurriak jaso behar dira.

Azkenik, kontuan hartuta BIPBren eremuak, hau da, Dulantziko herrigune historikoak, babes arkeologikoko araubide espezifikoa bat duela jada, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean hirigune historikoko arkeologia zona inskribatzeko Aginduan (EHAA 71. zk., 1996-04-12koa) xedatutakoaren arabera, eremu horri eragiten dion edozein obra edo lur erauzketa egiteko, aldeztatik Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak txosten teknikoa egin beharko du. Horri dagokionez, organo eskudun horri kontsulta egin behar zaio, txostena egin dezan eta, hala badagokio, ondare arkeologikoa babesteko neurri egokiak ezar ditzan, indarrean dagoen araudi espezifikoren arabera.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzatzaileak

Ingurumen agiri estrategikoaren 9. atalean, "Neurri Babesle eta Zuzentzaileen Proposamena" izenekoan, ageri diren ingurumen integrazioko neurriez gain, (egokitzat jotzen dira), honako baldintza hauek ezartzen dira "Dulantziko herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren (BIPB) berrikuspeneko" hirigintza agiriaren araudian gehitzeko:

- Dulantziko BIPBren eremuan egiten diren landaketak, lehentasunez zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoekin egingo dira.

- Dulantzi ibai ondoko berdeguneak handitzeko kasu zehatzean, "Galtzeko arriskuan" katalogatutako espezieen interes bereziko eremu denez, BIPBren araudian berriaz jasoko da ibaiertzean berezkoak diren zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak landatuko direla nahitaez.

- BIPBren araudian jasoko da, halaber, Dulantzi ibaiaren ondoan aurreikusitako Tokiko Berdegunea handitzeko baldintza dela paisaia birlandatzeko eta integratzeko proiektu baten bidez definitzea. Proiektu hori Foru Aldundiko ingurumen organoari aurkeztu beharko zaio, onar dezan.

- BIPB garatzearen ondorioz egiten diren jarduketetan, horiek Dulantzi ibaitik gertuen dagoen eremuan egiten direnean (Jabari Publiko Hidraulikoaren Eremua eta haren zortasun eremua), lanak martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitarteko alditik kanpo egingo dira, Bisoi Europarraren Kudeaketa Planean ezartzen den bezala (azaroaren 7ko 322/2003 Foru Agindua; 2003ko abenduaren 5eko ALHAO, 142. zk.), "Galtzeko arriskuan" katalogatutako fauna espeziea baita.

- Plan Bereziaren agiriak eraikin historikoak birmoldatzeari aplikatu beharreko neurri hau jasoko du bere araudian, kiropteroei eta gaueko harrapariei kalterik ez eragiteko:

- Herrigune historikoko eraikinak birmoldatzean, kiropteroen dagoen zehatz-mehatz aztertuko da. Kiropteroen hazlekuak aurkituz gero, aurreikusiko da eraikinak teilaberritu eta eraberritzea hazkuntza alditik (ekaina, uztaila eta abuztua) at, eta tratamendu intsektizidak apiriletik irailera arte doan alditik kanpo (bi hilabete horiek barne) eman beharko dira.

– Herrigune historikoko eraikinak birmoldatzean, zehatz-mehatz egiaztatuko da gau hegazti harraparien kokalekuak edo habiak ote dauden. Era horretako espezierik dagoela konturatuz gero (egragropiloak edo bestelako hondakinak ikusiz gero, gauez entzun zaielako bertan direla ziur egonez gero etab.), Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, kalterik ez eragiteko neurri egokienak ezar ditzan (lanen kronograma egokitzea edo beste).

– Kultura ondarearen arloan, ekainaren 4ko 126/2002 Dekretuan jasotakoa bete beharko da, hain zuzen, Dulantziko herrigune historikoa monumentu multzo izendapenez kalifikaturiko kultura ondasun adierazpena bereizten duena. Halaber, bete beharko dira Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legetik eratorritako zehaztapen aplikagarriak. Horretarako, kontsulta egin beharko zaie Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari (Museo eta Arkeologia Zerbitzua eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua) eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari.

• BIPBren agiri teknikoak bere araudian jasoko du dagokion eremuko eraikinetan eta hiri eremuan egin beharreko jarduketak edo obrak gauzatzeko gaitu beharra dagoela lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema alternatibo batzuk, eta debekatuta dagoela lehendik erabilitakoak isurtzea, kudeatzaile baimenduari entregatu beharko baitzaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: sor daitezkeen hormigoizko hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegiz edo zabortezi baimenduetara eraman beharko dira. Eraikuntza eta eraispenez hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntza eta eraispenez hondakinak.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. “Dulantziko herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren (BIPB) berrikuspeneko” Ingurumen Txosten Estrategikoa egitea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzatzaileei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategikoa hau ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2020ko apirilaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA